



1. KORTESIAZKO FORMULAK. AURKEZPENAK

Agurrak

1. Agurra ezagutzea.
2. Zenbait hizkuntza formulekin agur egitea, egoeraren arabera.
3. Hizkuntzarenak ez diren zenbait formulekin (begirada, irribarrea, keinua,...) agur egitea, egoeraren arabera.

Aurkezpenak

4. Aurkezpeneko hizkuntza-adierazpena ezagutzea.
 5. Norbere burua aurkeztea.
 6. Hirugarren lagun bat aurkeztea.
 7. Pertsonaren identitatearekin erlazionatzea izena eta abizenak.
- Eskaerak. Eskerrak ematea. Barkamena.

* TERMINOLOGIA / EGOERAK

- Agurrak: kaixo, egun on, arratsalde on, agur, gero arte, bihar arte, ikusi arte, aio, adio, astelehen arte...
- Erantzunak: berdin, baita zuri ere.

* BALIABIDEAK

- Egoera naturak,
- Dramatizazioak
- Abestiak.

2. ESKAERAK. ESKERRAK EMATEA. BARKAMENA

Eskaera

8. Agintera eta kortesiazko formulak erabiliz zerbait eskatzea.

Agintera

9. Agintera moduan egindako eskaera interpretatzea.

Baimena

10. Baimena eskatzea ekintza bat egiteko.
11. Ekintza bat egiteko baimen-eskaera interpretatzea.

Eskerrak

12. Eskerrak emateko gizarte formulak erabiltzea, egoeraren arabera.
13. Eskerrak emateko erantzuna interpretatzea.

Barkamena

14. Barkamena eskatzeko formulak identifikatzea.
15. Barkamena eskatzea inguruaren arabera formula diferenteak erabiliz.



HAUR HEZKUNTZAKO ADIERAZLEAK

Informazioa transmititzea eta sentimenduak, desioak, egoerak, objektuak ... deskribatzea.

*TERMINOLOGIA/ EGOERAK

- Eskerak: behar pertsonalak adieraztekoak (lokarriak, materialak...)
- Baimena: baimena eskatzekoak (komuna, materiala, ekintza..)
- Eskerrak: eskerrak ematekoak (eskerrik asko, mila esker, esker aunitz, esker mila) eta erantzunak (ez horregatik)
- Barkamenak eskatzekoak (barkatu, barka nazazu, barka iezadazu, nahi gabe egin dut).

*BALIABIDEAK

- Errepikarazi
- Eguneroko errutinak eta egoerak.
- Jokoak.
- Antzezpenak.
- Ikasi eta esanarazi.
- Errepikarazi.

3. INFORMAZIOA TRANSMITITZEA ETA SENTIMENDUAK, DESIOAK, EGOERAK, OBJETUAK... DESKRIBATZEA

Sentimenduak

16. Sentimenduak lehen pertsonan adieraztea (egon eta sentitu aditzak).
17. Beste batzuek egindako sentimendu adierazpenak interpretatzea.
18. Solaskideari galdetzea bere sentimenduen gainean.

Desioak, beharrak

19. Desioak edo beharrak interpretatzea formula egokiak erabiliz.
20. Beste lagun baten desioen edo beharren adierazpena interpretatzea.

Informazioa transmititzea

21. Galderazko formula egokiak erabiliz gertakari esanguratsuen gaineko informazioa eskatzea (zer, nola, noiz, non, nork, nori, zerekin, etab.).
22. Beste batzuek emaniko informazioa interpretatzea.
23. Lehen pertsonan kontatzea gertatu zaien zerbaitekin, ekintza espazioan eta denboran modu zuzenean kokatuz.

Objetuak deskribatzea

24. Objektu bat deskribatzea eta deskribapenarengatik ezagutzea.
25. Objektu batek iradokitzen dituen sentimendu eta irudiak adieraztea.
26. Bertan diren objektuekin erkatzeak egitea.
27. Beste batzuek egindako erkatzeak interpretatzea.

Instrukzioak

28. Toki ezagunera iristeko egin behar den ibilbidea azaltzea.



HAUR HEZKUNTZAKO ADIERAZLEAK

29. Ibilbide bat nola egin behar den beste batek azaldu eta azalpen hori interpretatzen jakitea.

30. Objektuak, pertsonak, tokiak, helbideak, etab. aurkitzeko modua azaltzea, espazioko erreferentziak erabiliz.

31. Beste batzuek objektuak, pertsonak, tokiak, helbideak, etab. aurkitzeko emandako azalpenak interpretatzea.

32. Aparatu ezagun baten funtzionamendua azaltzea.

33. Aparatu baten funtzionamenduaren gaineko informazioa eskatzea.

Mezuak, elkarrizketak

34. Mezu bat beste lagun batzuei igortzeko identifikatzea.

35. Beste lagun batzuei mezu bat igortzea, mezuen edukia mantenduz.

36. Telefono bidezko komunikazioa eta emaila eta hartzailea bertan izanik sortzen den komunikazioa bereiztea.

37. Emailarekin eta hartzailearekin telefonoz hitz egitea, komunikazioa hasi eta bukatzeko formula desberdinak erabiliz.

38. Telefonoz hitz egitea komunikazioa etetea saihestuz, komunikazio egoera bakoitzerako egokiak diren adierazpenak erabiliz (iritzia eman, informazioa eskatu, barkamena eskatu, zerbait eskertu, etab.).

* TERMINOLOGIA / EGOERAK

- Sentimenduak: triste, pozik....
 - Haserre zaude? Zer duzu? Zer gertatzen zaizu?
- Desioak – beharrak:
 - Gose naiz, goseak nago, hotz naiz, hotzak nago.
 - Etxera joan nahi dut, ez dut jantokira joan nahi, nahi nuke, gustatuko litzaidake.
- Informazioa transmititu:
 - Zer, nola, noiz, non, nork, nori, zerekin ...
 - Denboran kokatzeko formulak (hasieran, ondoren, gero, jarraian, azkenean, bukatu eta gero, lehenengo, aspaldian, duela urte asko.
- Objektuen deskribapena:
 - Ezaugarri fisikoak (kolorea, tamainera)
 - Balioa (zertarako balio duen)
 - Konparaketa (txikiagoa....txikiena)
 - Iritzia (gustukoak, sentimenduak... nazka)
- Instrukzioak
 - Espazio kontzeptuak (aurrera... gora...)
 - Jokoen arauak eta instrukzioak azaldu (kartak, ordenagailua, dominoa, memoria, lotoa, partxisa, jostailuak)
- Mezuak. Elkarrizketak
 - Mezua asmatu eta eginarazi (hiru agente eskatuz).
 - Telefono formulak ezagutu.
 - Mezua transmititu (etxekoa, atezaina, beste gelan eta tutoreari).



* BALIABIDEAK

- Eguneroko egoerak, sortutako egoerak.
- Galde-erantzunak.
- Eguneroko errutinak.
- Errepikarazi, ikasi, transmititu eta interpretatu.
- Formulak eta esaldiak osatuak eskatzea.

4. NARRAZIOAK. KONTAKIZUNAK. ERREZITATUAK. DRAMATIZAZIOA.

Ipuinak

39. Ipuin bat kontatzea literatura genero horrenak diren formulak (hasierakoak eta bukaerakoak) erabiliz eta argumentuko gertaera zenbait, protagonistaren eta bigarren mailako pertsonaien deskripzio laburra, eta elementu material esanguratsuak erabiliz.

40. Hasierako eta bukaerako formulak dituen ipuin bat interpretatzea, argumentuko hiru gertakizunen narrazioa egitea, eta protagonista, bigarren mailako pertsonaiak eta elementu material esanguratsuren bat deskribatzea.

41. Beste haur batek ozen irakurritako ipuin baten narrazioa segitzea.

Gertakariak

42. Haurrentzat esanguratsua den gertakari zehatz eta esanguratsu bat kontatzea, lehenaldiko aditz formak erabiliz eta zer gertatu zen, non gertatu zen eta bere ustez garrantzitsua zergatik den azalduz eta gertakarien denborazko sekuentzia transmitituz.

43. Beste batzuek egindako kontakizunak interpretatzea.

44. Norberari gertaturiko pasadizo bat kontatzea.

45. Beste pertsona batek kontaturiko pasadizoa interpretatzea.

Sekuentziak

46. Irudi serieak antolatzea, narrazio bihurtu arte.

47. Narrazio bateko ilustrazioen ordena aldatzea, esanahi desberdinak emateko.

Olerkigintza

48. Poesia bat entzutean erritmoa eta errima antzematea.

49. Banaka edo taldeka memorizatzea, errezitatzea eta dramatizatzea erritmo eta intonazio egokiko biko errimatua, bertsoa eta poesia, gorputzaren hizkerarekin lagunduz.

50. Poesia bat entzutean, identifikatzea poesia hori osatzen duten elementu berariazkoak (tokia, denbora, koloreak, etab.) eta transmititu nahi duten mezua eta edukia gorpuzkerarekin erlazionatzea.

51. Banaka edo taldeka errezitatzea poesia narratibo bat, beharrezko etenak eginez eta intonazio eta erritmo egokia erabiliz.

52. Poesia narratibo batean izaten den gertakarien segida ezagutzea.



HAUR HEZKUNTZAKO ADIERAZLEAK

53. Poesia narratibo bat entzutean, identifikatzea poesia hori osatzen duten berariazko elementuak (tokia, denbora, koloreak, etab.), ideia nagusia, gertakari narratiboen segida, etab.

54. Poesiaren edukia tituluarekin erlazionatzea, errezitatzean errepikatzen ote den erreparatuz.

55. Modu arrazoituan iritzia ematea, entzundako poesia gustuko duen ala ez.

56. Biko errimatuak ekoizteko biko egitura erabiltzea, banaka zein taldeka, eredu bati jarraituz, intonazio eta erritmo egokia erabiliz.

57. Poesia bat analogiaz sortzea emandako erreferente batetik abiatuz, beharrezko aldaketak sartuz eta errima errespetatuz.

58. Banaka edo taldeka, poesia bat modu autonomoan asmatzea, erreferenterik gabe, bertsoen errima eta egitura errespetatuz.

59. Sortutako poesiaren bertsoak identifikatzea.

Antzerkia

60. Haurrentzat antzerki lan batean parte hartzen duten protagonista eta bigarren pertsonaiak (bizidunak edo bizigabeak) identifikatzea.

61. Haurrentzat antzerki lan batean parte hartzen duen pertsonaia (bizidun edo bizigabe) bat interpretatzea.

*TERMINOLOGIA / EGOERAK

- Ipuina
 - Ipuin baten hasierako formulak ezagutu: Behin batean, bazen behin, duela urte batzuk, aspaldi-aspaldian, urrutiko herri batean.
 - Korapiloa, loturazko hitzak (lokailuak): orduan, halako batean, hori dela, hala ere, baita ere, beraz, ondoren, beranduago, segituan eta gero.
 - Bukaerako formulak: eta hau ez bada sar dadila kalabazan, ximiliku ximilika ximilikulikulika ipuina bukatu da, eta hau horrela zela badakit nik, geroztik berririk ez dakit nik, katu katu katu ipuina bukatu, tari tururu ipuina bukatu zaigu, eta hau polita zan hala ez bazan, ixo eta inori ez esan.
- Gertakariak
 - Gertakari bat kontatu aditza egokituz (non, noiz, zertara).
 - Besteak esandakoa entzun eta interesa sortu.
 - Kontatzerakoan txandak errespetatu.
- Sekuentziak
 - Narrazio edo ipuin bat osatu sekuentzien bidez.
 - Ordena aldatuz esanahia egokituz.
- Olerkia
 - Olerkiak, errezetak errepikatu, ikasi eta dramatizatu.
 - Esanahia aztertu.
 - Erritmoa, intonazioa egokia erabili.
 - Izenburua eta errepikapenak identifikatu.
 - Olerkiekin gozatu.



HAUR HEZKUNTZAKO ADIERAZLEAK

- Dramatizazioa
 - Ipuina eta egoerak antzeztu.
 - Pertsonaia nagusia, narratzailea eta bigarren pertsonaia identifikatzea.

*BALIABIDEAK

-

5. HITZALDIAK. EZTABAIDAK. ELKARRIZKETAK. INKESTAK

Hitzaldiak

62. Banaka edo taldeka, gainontzekoen aurrean gai bat azaltzea, irudiak edo marrazkiak baliatuz.
63. Banaka edo taldeka, hitzaldi bateko gaia identifikatzea, irudiak edo marrazkiak baliatuz.
64. Banaka edo taldeka, hitzaldi batean emandako informazioa interpretatzea, irudiak edo marrazkiak baliatuz.
65. (*) Banaka edo taldeka, gainontzekoen aurrean gai bat aurkeztea, idatzitako gidoia baliatuz.
66. (*) Banaka edo taldeka, hitzaldi batean emandako informazioa identifikatzea, idatzitako gidoia baliatuz.
67. Hitzaldi bateko ideia nagusiak identifikatzea eta izendatzea.

Eztabaida

68. Moderatzaileak eztabaida batean duen egitekoa ezagutzea eta betetzea: norbere burua eta gainontzekoak aurkeztea, gaia azaltzea, hitza ematea, txanda errespetaraztea, etab.
69. Parte-hartzailearen egitekoa ezagutu eta betetzea: hitza eskatzea, hitza noiz ematen zaion identifikatzea, gainontzekoei entzutea, eztabaidagaiaren gainean iritzia ematea, argudioak ematea, beste lagun batzuen iritzia identifikatzea, iritzi berekoa denari arrazoia ematea, norberarenaren kontrakoa den iritzia identifikatzea, etab.

Elkarrizketa

70. Elkarrizketatzailearen egitekoa ezagutu eta betetzea: publikoari agur egitea, elkarrizketatua aurkeztea, galderak egitea, erantzunak interpretatzea, publikoari adio esatea, etab.
71. Elkarrizketatuaren egitekoa ezagutu eta betetzea: objektu edo gertakari baten gainean egiten zaion galdera identifikatzea, bere iritziekin erantzutea, publikoari eta elkarrizketatzaileari agur egitea, etab.
72. Objektu edo gertakari baten gainean argumentatzea.
73. Objektu edo gertakari baten gainean norbaitek argumentatzen duenean identifikatzea.

Inkesta

74. Datu baten gaineko galdera zehatza egitea.



75. Galdetzen zaionaren gainean identifikatzea.

76. Datu baten gaineko galdera zehatz bati erantzutea.

77. Inkesta batean parte hartzea, egindako galderei erantzunez.

BALIABIDEAK

- Hitzaldia
 - Banaka edo taldeka.
 - Egindako zerbait besteei azaltzea.
 - Jolasak.
- Eztabaidak
 - Parte hartzailearen egitekoa ezagutu eta betetzea.
 - Hitza eskatzea.
 - Txanda errespetatzea.
 - Besteen iritzia errespetatzea.
 - Moderatzailearen egitekoa ezagutzea.
- Elkarrizketak
 - Informazioa lortu eta trukatu.
 - Informazio bila pertsona batengana joaten garenean ze gauzak kontuan hartu behar diren:
 - Agurtu
 - Aurkeztu
 - Galderak egin, txandak errespetatuz
 - Informazioa jaso, apuntatu.
 - Eskerrak eman.
- Inkesta
 - Informazio bat lortzeko, galdera egokiak egiten jakitea.

6. HITZ JOLASAK: ERRIMAK, AHO-KORAPILOAK ETA ASMAKIZUNAK

Jolas eta jokoak

78. Jolasaren garapenak dituen uneez markatzen dituzten hitzak eta esaldiak ezagutzea eta aplikatzea. Baita jolas bakoitzean egin behar diren mugimenduak eta jarduera sekuentzia ere.

79. Fitxek, taulak edo kartek duten informazioa ezagutzea eskatzen duten mahai edo rol joko zenbait egitea.

- * Jolasen esamoldeak ezagutu eta erabiltzea.
- * Zenbait mahai jokoren arauak ezagutu eta erabiltzea.
- * Jolasen eta kantuen keinu eta mimikak ezagutzea.

Errima

80. Sehaska hitzekin, errimekin eta kantuekin keinu-jokoak egitea, intonazio onarekin eta erritmoa errespetatuz.

81. Isiltasuna soinurik eza bezala identifikatzea, jolasaren parte denean, errima eta sehaska kantekin.

82. Errima eta sehaska kantuetan hitza-isiltasuna konbinatuz jolasak egitea, intonazio onarekin eta erritmoa eta isiltasuna errespetatuz.



HAUR HEZKUNTZAKO ADIERAZLEAK

83. Entzundako errima edo sehaska kantu batean isiltasuna ordezkatzeko dezakeen hitzari aurreratzea.

84. Izenetik abiatuz eta keinuarekin bat, biko errimatuekin eta errimekin jolasak asmatzea, erritmoa eta intonazioa zainduz.

85. Errima eta entzundako ahozko mezua identifikatzea, egindako keinuarekin eta egindako jokoetako ideia nagusiekin erlazionatuz.

86. Erantzunean koherentzia logikoa duten biko errimatuak eta errimak sortzea.

87. Biko errimatuak eta errimak asmatzea, erantzun logikoa absurdu bihurtuz eta modu dibertigarrian adieraziz.

88. Aldrebeskeria bat entzutean, galdera eta erantzuna erlazionatzea.

*Kanta, olerki, aho-korapiloen errimak:

- Ezagutzea
- Errepikatzea
- Intonazio eta erritmoak errespetatzea
- Mezua identifikatzea
- Fonetika zaintzea

Aho korapiloa

89. Aho-korapilo batean entzundako hitz zenbait berriz esatea.

90. Aho-korapilo bat errezipitatzea banaka, erritmo, intonazio eta fonetika egokia zainduz.

91. Aho-korapiloekin jolasak asmatzea, nork bere erritmoa, intonazioa eta fonetika zainduz.

Asmakizunak

92. Ahozko generoa den asmakizunaren hizkuntza egiturak identifikatzea, eredu ezagunetatik abiatuz.

93. Taldean ezaguna den asmakizuna kontatzea, objektu baten edo irudi baten laguntzarekin eta laguntzarik gabe, intonazio egokia eta nork bere diskurtso formula erabiliz.

94. Entzundako ahozko mezua irudiarekin edo objektuarekin erlazionatzea.

95. Entzundako mezuaren hitzen arteko erlazio logikoa asmatzea, erantzun koherentea eman ahal izateko.

96. Entzundako asmakizun batean zer transmititu nahi den identifikatzea.

97. Asmakizun bat entzutean posible diren erantzun logikoak identifikatzea.

98. Bikoteka edo banaka asmakizun bat asmatzea, egokia den diskurtso formula aplikatuz.

*Asmakizuna :

- Egitura ezagutzea:
 - Sarrerak
 - Deskribapena
 - Galdera
 - Erantzuna (koherentea, argudiatzea)
- Ezagutzea



- Taldeari kontatzea
- Asmatzea

7. ARAUAK. ERREZETA.

Arauak

99. Irakasleen aginduak ulertzea eta betetzea, ikasgelako jardueri loturiko erritualetan (pertxan berokia zintzilikatu, materialak atera eta antolatu, ikasgelako eremu desberdinetara joan, jarduera psiko-motrizak, plastikoak edo adierazpen musikalekoak egin,...).

100. Ikastetxean eta heldu batek etxean emandako arauen azalpena interpretatzea.

101. Ikastetxeko eta etxeko arauak beste bati azaltzea.

* Inguruko arauak ezagutu eta errespetatzea: gela, ikastetxea, etxea, polikiroldegia, liburutegia...

* Agintera modua erabiltzea.

Errezeta

102. Errezeta batean testu mota, osagaiak, tresnak, prozesua, etab. identifikatzea.

103. Errezeta bateko osagaiak, tresnak, prozesua, etab. deskribatzea, marrazkien, ebakigarrien, eta abarren laguntzarekin.

104. Beste batek egindako errezeta baten lanketa interpretatzea.

* Errezeta batean testu mota identifikatzea.

JARRERAK

1. Ahozko hizkuntza, sentimenduak, interesak eta informazioa ezagutzeko, tresnatzat hartzea eta baloratzea.
2. Ahozko egoera ezberdinetan parte hartzeko jakin-mina piztea.
3. Jasotako informazioa era egokian erabiltzeak duen onura baloratzea.
4. Norberaren hizkuntz produkzioak hobetu eta aberasteko interesa eta esfortzua.
5. Hizkuntzaren erabilera zuzena eta aberatsa lortzeko jakimina piztea.
6. Besteen ekoizpenekiko errespetua eta interesa.
7. Ahozkoak ez diren baliabideak baloratzea.
8. Elkarrizketa eta taldeko solasaldietan entzuteko eta parte hartzeko jarrera baikorra, partehartzailea eta errespetuzkoa garatzea.
9. Kultur adierazpenekiko sensibilitatea, gozamina, arreta eta interesa.